

ZALDIBIAKO GUNE ETA ERAIKINEN ERABERRITZEA LANTZEN, 2016

TALDE ERAGILEAREN 2. TAILERRA, 2016-XII-14



Saioaren data: 2016-XII-14

Saioaren lekua: Kultur Etxea

Parte hartzaileak: 21 pertsona. 14 emakume eta 7 gizon.

Udaleko ordezkariak: Estitxu Mujika

Dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Enara Eizagirre

Hasiera ordua: 18:00

Amaiera ordua: 20:15

1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Estitxu Mujika zinegotziak ongi etorria eman die espazio publikoen eraberritzea adosteko prozesuko Talde Eragilearen bigarren bilerara gerturatu diren herritarrei, gaurko bileraren kokapena egin du eta Susana Martinez Aztikerreko teknikariari eman dio hitza.

Honek, prozesuaren kokapena egin ondoren, gaurko saiorako helburuak, jarraituko ditugun pausoak eta egingo diren dinamikak azaldu ditu.



2. ORAIN ARTEKO IBILBIDEA ETA ONDORIOAK

Hasteko, Zaldibiako espazio publikoaren eraberritzeari dagokionez, orain arte eman diren pausoen errebasoa egin da.

Udala, bertan dauden bi taldeen adostasunez, Zaldibiako gune eta eraikinen eraberritzea herritarrekin lantzeko partaidetza prozesu bat ari da gauzatzen. Ibilbide honetan, dagoeneko urrats ezberdinak eman dira:

1. Batetik, "*Nolako Zaldibia nahi duzu?*" parte hartze prozesua garatu zen, eta bertan, herritar ezberdinen ikuspegiak eta proposamenak landu ziren, lauzpabost gune zehatzen eraberritzea konpartitzen zelarik.

2. Aipaturiko hausnarketa horren harira, Udal teknikariek "*Eraikin Publikoei buruzko Ekintza Plana*" izena duen dokumentua sortu dute.

Bertan, herriko hainbat gunetan egin beharreko eraberritze lanetarako ekintza plana zehaztu da hainbat aukerarekin: **plaza gunea, Artxanberriko lokalak, antzokia eta eskola gunea.**

3. Sortutako planaren zehaztasunak herritarrekin konpartitu eta lantzeko, 2016 amaieran parte hartze prozesu bat jarri da martxan.















Aurrez egindako hausnarketetan lehentasunezkoa hura markatu zenez, lehenengo lanketa gisa **plaza gunearen hausnarketari** erreparatu zaio (nahiz eta besteak ere azaldu diren eta ekarpen eta balorazioak jasotzeko espazioa ireki den).

4. Horren baitan, azaroan Talde Eragile bat elkartu da Ekintza Planeko proposamen desberdinen ezaugarri teknikoak aurrez aztertzeko eta Herri Jardunaldia prestatzeko. Ezaugarri eta irizpide desberdinen arabera aukeratutako herritarrek osatu dute talde eragilea.

5. Talde horrek egindako aurre-lanketa eta lehenestearekin hainbat analisi egin dira: herritarrek definitu dituzte plazan beharrezkoak diren guneak eta herrian behar diren zerbitzuak; teknikoki, estalpea gune desberdinetan kokatzeko eta udal eraikin berri bat osatzeko aukerak eta mugak aztertu dira.

Jarraian azaltzen dira Talde Eragileak egindako hiru lanketen laburpenak: plaza gunea eraberritzeko Ekintza Planak jasotzen dituen aukera desberdinen balorazioa (lehentasunaren arabera markatzen den ordenan adierazia); lehenengo bileratik ateratako ondorio nagusiak eta herrian beharrezko gisa zehaztu ziren zerbitzuak eta plazako guneak. Amaitzeko, horren gainean egindako balorazio teknikoa jasotzen da.

PLAZA GUNEAREN ERABERRITZEA: Ekintza Planeko proposamenen balorazioa

<p>1. FRONTOIA ESTALI "Historikoa" den plazako frontoi osoa estaltzeari erantzuten dio, herritarren artean hobetsi izan dena. Honen kudeaketak baldintzak sortu ditu: aurrera eramateko Elizarekin hitzarmena egin behar da (halaberrez), kostu esanguratsukoa.</p>	<p>Aterpea: 233.391 (bideragarria) Elizarekin hitzarmena (+692.807,05) Guztira: 926.198,05 MUGA: finantzaketa handia behar</p>	
<p>INDARGUNEAK - Espazio estali handiena - Negoziatu deike saloian espazioa estalperako - Frontoia ia osorik estaltzen da, egoki; aterpearentzat toki ideala. - PROPOSAMEN BERRIA: frontoiaren altueran egin estalkia (ikusmena konponduz) - Aukera egokiena, betidanik ezagutu degun gunea; bai jolasteko, jaialdiak, bazakariak-afariak etabar. - Kokapena.</p>	<p>AHULGUNEAK - Kostu handia - Eliza eta ezkerreko etxea itzalpen "ez gustakoa" gelditzen dira - Estali altuegia - Ikusmena galtzen dute inguruko etxeek neurri batean - Kostue</p>	
<p>2. KULTUR ETXE ZAHARRA BOTA, BERTAN UDALETXE BERRIA; UDALETXE ZAHARRA BOTA, BERTAN ATERPEA ERAIKI Hainbat proiektu jasotzen ditu, plazaren eraberritzeko ikuspegi integrala ekarriko luke. Interbentzioak faseka egitea dakar, ezin baitira aldi berean denak egin. Gainera, "historikoak" diren eginbeharrei erantzungo lieke (udala berritu, aterpea...). Eremu publikoa, ondorioz ez du negoziatorik/adostasunik eskatzen.</p>	<p>Guztira: 1.995.174 MUGA: finantzaketa behar</p>	
<p>INDARGUNEAK - Estalpea dago - Udaletxe berria - Udaletxe berria  PROPOSAMEN BERRIA: Udaletxe zaharra gizarte zebitzuetarako bideratu (Hogarria barrue) - Erabilpen anitza - Plaza handitu egiten da - Agian dena batera merkeago, kontuak egin behar - PROPOSAMEN BERRIA: Aterpea -> Udaletxeari lotu nolabait</p>	<p>AHULGUNEAK - Edifizio bat galtzea (zerbitzu publikoak izan daitezke bertan) - Plazaren itxura erabat aldatzen du - Oraingo zaretxekin ze gertatuko da? - Udaletxe aurreko estalpea itsusia gelditzen da - Zahar etxea erdigunean behar da - Kultur etxeko zerbitzua galtzen da - Kaminua gertugi - Eremu ez egokia - Epe luzerako hipotekatuko litzateke herria - Lau aldeak irekita - Kosto handia kolpetik</p>	
<p>3. FRONTOI ERDIARI ESTALPE ARINA Proposamen honek "historikoa" den plazako frontoia estaltzeari erantzuten dio. Kasu honetan proposatzen da frontoi erdia estaltzea. Honek aterpe gastua arintzen du. Kasu honetan ere Elizarekin hitzarmena bideratu beharko litzateke (kostua du).</p>	<p>Aterpea: 180.000 inguru (bideragarria) Elizarekin hitzarmena (+692.807,05) Guztira: 872.807,05 MUGA: finantzaketa handia behar</p>	
<p>INDARGUNEAK - Inpaktu bisual gutxiago - Estalpe nahikoa - Ez diogu aurkitzen osoaren ondoan</p>	<p>AHULGUNEAK - Estalki altuegia - Kostu aldeagatik, hobe frontoi osoa estaltzea - Estetikoki itsusia - Txiki samarra - Kostu oso handia - Etekin gutxi</p>	
<p>4. JOXEPANE-UDALETXE ARTEKO EREMUA ESTALI Eremu publikoa da, ez du eskatzen beste inorekin adostasunik. Zuhaitzak kendu behar kasu honetan. Finantzaketa lortuta, epe motzeko proiektua (faserik ez)</p>	<p>Guztira: 231.032 MUGA: finantzaketa behar</p>	
<p>INDARGUNEAK  PROPOSAMEN BERRIA:Olano eta beste etxea erosi eta bota - Bajoak erabili jubilatuentzat - Aterpea egin - Batere ez zaigu gustatzen - Indargunerik ez dugu ikusten</p>	<p>AHULGUNEAK - Estetikoki itxusie - Ez da estaltzeko gunea - Argitasun gutxi plazan - Arbolak bota beharra - Ez da leku erabilgarria edozein egunkizunetako - Plazarako sarrera "naturala" oztopatu</p>	
<p>5. KULTUR ETXE ZAHARRA BOTA ETA BERTAN ATERPEA ERAIKI Egun kultur etxe zaharra den eraikina bota, eta bertan sortuko litzatekeen eremuan aterpea sortzea aurreikusten du proposamen honek. Aipaturiko eraikina zaharkiturik dago egun, eta bide batez konponbidea emango litzaioke eraikinaren egoerari ere. Eremu publiko da, beraz ez du eskatzen inorekin adostasunik.</p>	<p>Guztira: 392.597 MUGA: finantzaketa behar Artxanberriko zerbitzua aurrez egokitu behar</p>	
<p>INDARGUNEAK - Ez du baldintzatzen udaletxearen arazoa - Eremu publikoa ez dago inoren menpe - Plaza eremua handitu eta aberastu egiten du - Aterpea lortzen da - Aterpea lortzen da</p>	<p>AHULGUNEAK - Ez da leku aproposa, aparte xamar - Eraikin oso bat galtzen da - Lau aldeak irekita - Errepidetik gertuegi - Zerbitzuak galtzen dira, toki berri bat bilatu behar - Errepidetik oso gertu - Kostua handitzen da</p>	
<p>6. PARKEA DAGOEN EREMUA ESTALI Egun parkea dagoen eremua estaltzea jasotzen du: eremuaren urbanizazioa eta estalpea. Parkea hortik kentzea ekarriko luke. Eremu publikoa da, beste inorekin negoziatorik ez. Finantzaketa behar du, baina epe motzeko egikaritzea luke.</p>	<p>Guztira: 204.246 MUGA: finantzaketa behar</p>	
<p>INDARGUNEAK - Kostue txikie - Haur eta gazteentzako aterpea - Epe laburrean burutzeko aukera - Festetan karpa beharrik ez</p>	<p>AHULGUNEAK - Estetika galera - Parke kendu beharra - Plazaren eremua murriztagoa - Kultur etxearen inguruko hausnarketa eskatzen du - Kultur etxe berria (Karreane) estali egiten du - Atzeko eraikuntzak ezkututzen ditu</p>	

TALDE ERAGILEAREN 1. TAILERRETIK ATERATAKO ONDORIOAK

Plaza gunearen eraberritzeari dagokionez Ekintza Planean jaso diren aukeren hausnarketa egin zen Talde Eragilean, eta honako ondorioak atera ziren:

Abiapuntu eta helburuko gogoeta: plaza osoaren eraberritzea izan behar da.

PLAZAREN ERABERRITZEA DEFINITZEKO,

Bi aukera ikusten dira estalpeari dagokionez; eta, bestetik, plazan zehazki eta herrian oro har behar diren zerbitzuen inguruan lanketa egin beharra dago, antolaketa espaziala zehazteko:

ESTALPEA koka daiteke:

- 1.Egungo frontoian (Talde eragilearen lehen bilerak horrela lehenetsi du lehen ariketa batean)
- 2.Egungo udal eraikinaren espazioan (Eraikina kultur etxe zaharraren espazioan kokaturik)

ZERBITZU BEHARREN ZERRENDA ETA HORIEN KOKAPENA definitu behar da
 ***Eliza inguruak** ere hausnarketa bat eskatzen du plazaren eraberritzea antolatzerakoan: bertan kokatutako elementua da eta hainbat moldaketa beharrean dago; bestalde, hainbat berritze lan zehazterakoan, inplikaturik dagoen elementua da.

HERRIRAKO ZERBITZUAK (KOKAPENAREKIN) ETA PLAZAKO GUNEAK

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	KOKALEKUA
UDALA Bulegoa	PLAZAN
GIZARTE ZERBITZUAK Hogarria, Berdintasuna eta emakumeen lantzeko zerbitzua	PLAZAN
ADINEKOEN ZAINTZA Eguneko zentroa, jangela soziala, gimnasioa, pelukeria-barberia, podologoia, masajista-osteopata, jarduerak	PLAZAN (ARTXANBERRIN)
KULTURA Kultur etxea, liburutegia, musika gelak	PLAZA-KARREANEN (ARTXANBERRIN)
ERABILERA ANITZEKO ARETOAK	PLAZAN ETA BESTE AHALIK ETA GUNE GEHIENETAN
GAZTERIA Gazte- lekua, Gaztetxea	BESTELAKO GUNEETAN: Artxanberri, Mediku etxean, Plaza inguruan, Itoitz etxean, dagoen lekuan
HEZKUNTZA Haur eskola, jangela	ESKOLAN EDO INGURUETAN (ARTXANBERRIN)
KIROLA	FRONTOIAN EGOKITZAPENEKIN

Talde Eragileko kideek modu indibidualean baloratu dute Zaldibian zein zerbitzu diren beharrezkoak, eta horietatik zeintzuk egon behar duten plazan (berdez adieraziak taulan).

PLAZAN BEHAR DIREN GUNEAK EDO ESPAZIOAK

Honako guneak behar direla plazan aipatu da:

- **Estalpea**
- **Parkea**
- **Gune zabala**
- **Terrazetarako tokia**
- **Frontoia eta kirol espazioa**
- **Udal eraikin berria (Hogarra, udal eta gizarte zerbitzuak, erabilera anitzekoak...)**
- **Kultura gunea (espazioa, Karrenea)**

HERRIRAKO ZERBITZUAK (KOKAPENAREKIN) ETA PLAZAKO GUNEAK

Udaleko ordezkari teknikoekin baloratu eta kontrastatu ondoren estalpea kokatzeko aukera desberdinak eta Udal espazio edo eraikin eraberrituak egiteko aukerak, honako ondorioak edo emaitzak atera dira:

- ✓ **ESTALPEA FRONTOIAN KOKATZEA** aukera bat da oraingoz. Baina kontuan hartzeko elementu bat dago: **Zaldibiako Eliza ondare historiko izendatzeko proposatuta** dago. Hala izendatuko balitz, ezingo litzateke egin esku-hartzerik ez elizan, ezta inguruko eraikinetan ere. Horrek frontoiaren estalpea ezin egin izatea eragingo luke. Egin ahalko litzatekeen interbentzio bakarra elizaren eraikina jatorrizko egoerara itzultzea litzateke: saloiak bota eta bi alboetan estalpeak egitea.
- ✓ **UDAL ESPAZIO ETA ERAIKINAK ERABERRITZEKO**, Talde Eragileko kideek planteatutako zerbitzu guztiak barnebilduko lituzkeen eraikin bat honakoa izan daiteke: 19x19 metroko karratua, hiru solairukoa.

6. Abenduaren 3an Herri Jardunaldia gauzatu da, espazio publikoaren birmoldaketarako dauden aukera desberdinak herriratzeko eta herri posizionamendua identifikatzeko plaza gunearen eraberritzeari eta estalpearen kokapenari dagokionez, bitarte horretan egindako analisi tekniko eta herritarrak aintzat hartuta.


7. Elementu guztiak aintzat hartuta, emaitza desberdinak eman dituzte Talde Eragilearen lehenengo tailerreko posizionamenduak eta Herri Jardunaldikoak: **adostasuna dago plazaren eraberritze integrala hartu behar dela kontuan; desberdintasuna dago estalpearen kokapen lehentasunean, lehenengo Talde Eragilean frontoia hobetsi baita eta Herri Jardunaldian udal eraikinaren obrarekin integratutako estalpea.**

Orain arteko lanketaren ibilbidea argitu ondoren, Aztikerreko teknikariek gaurko saiorako helburuak, jarraituko ditugun pausoak eta egingo diren dinamikak azaldu dituzte.

3. PLAZA GUNEAREN ERABERRITZE AUKERA DESBERDINEN ANALISIA, 3D MAKETAZ

Zaldibiako herritarrek eta arkitektura fakultateak osatutako herriaren 3D maketa baten bidez Talde Eragilean grafikoki ikusi ahal izan da Zaldibiako plaza nola geldituko litzatekeen Kultur Etxea eta oraingo udaletxea eraitsita: hau da, Herri Jardunaldian hobetsi zen proiektua gauzatuko balitz.

Udaletxe berria egiterakoan jasotako proposamenean 19x19 m-ko eraikuntza bat planteatu da. 1200 m² sortzen ditu horrek guztira. Maketa erabili da sortzen den espazioan 19x19 metroko udal eraikin bat eta estalpe bat kokatzeko aukera desberdinak aurkezteko, eta herritarren ideien eta proposamenen arabera lekualdaketak eta kokapen desberdinak aztertzeke aukera izan da.



Tarte horren ondoren, bertaratutakoen artean zalantzak, galderak eta iritziak konpartitzeko tarte ireki da. Honako ideiak atera dira:

- Errepidea sartzan da plazan, orain duen babesa kentzen baita.
- Behin behineko aterpe batek onurak izan ditzake, hain justu, gune desberdinak probatzen joateko aukera uzten baitu.
- Estalpearen funtzioaz hausnartzean, argi izan behar dugu ez dela soilik aterpea egiteko. Sartzan uzten duen argia ere hor dago.
- Hausnarketa bat izan da planteatzen den udaletxea ez ote den eraikin handiegia, hau da, benetan hainbeste espaziorantzat beharra dagoen.

4. PLAZARAKO PROIEKTU INTEGRALAREN AZTERKETA

Jardunaldian lehenetsitako egitasmoaren irudiak eta aukerak aztertu ondoren, partaideak taldetan banatu dira proiektu norabide berri horren azterketa egiteko. Horretarako, bi ariketa egiteko eskatu zaie:

- ✓ Jardunaldian lehenetsitako plaza egitasmoaren indargune eta ahulguneak idnetifikatu.
- ✓ Zerbitzu eta gune helburuak erreparatu.

Tarte bat ireki da taldetan bi elementuen inguruan hausnartzeko. Ondoren, plenarioan konpartitu dira guztien ideiak. Honako hausnarketak jaso dira:

ZERBITZU HELBURUAK
- Eraikinaren neurriak zehazteko orduan zerbitzu kopurua kontuan hartu behar da.
- Kontuan hartu egungo hogarra, udaleko zerbitzuak etab.
- Hogarra leku zentrikoan kokatu beharko zen.
- Edadetuentsat zuzenduriko zerbitzuak udal eraikinean kokatu beharko lirateke.
- Aipatutako zerbitzuekin ados.
- Eguneko zentroa eta hirugarren adineko jendearentzako zerbitzua behar da.
- Jangela soziala udaletxean edo plazan kokatu beharko litzateke eta adin desberdinen artean sailkatu.
- Intimitatea eta aspektu emozionala aintzat hartu.
GUNE HELBURUAK
- Zerbitzuak beste espazioetan banatu daitezke.
- Egokia da kulturgunea Artxanberrin kokatzea eta eskola gunea batera

PLAZA EGITASMOA: JARDUNALDIAN LEHENETSITAKO EGITASMOA
- Eraikinean aterpeak jartzea erraztuko luke dena.
- Plaza handia egitea ondo deritzote, udaletxea Joxepane aldera jartzea.
- Bere inguruan estalpetxo txikiak jarri.
- Estalpe mugikor bat ondo etorriko da.
- Udaletxe berria egitean hirugarren adineko zerbitzuak ez dira mugitu behar, hori indargunea da.
- Oso handia ikusten da eraikina, agian egokia litzateke hainbat zerbitzu beste eraikinetan sartzea eta eraikin txikiagoa egitea.
- Frontoia estaltzea hobesten da saloien pareraino. Bere frentean festetarako taulatua izatea egokia litzateke. Lanketarekin jarraitu behar da sentsibilitate handia beharko baita obra egiterako orduan.
- Eraikina oso handia da.
- Estalpea ahazten da, non jarriko genuke? Ez dago argi kokalekua.
- Epe motzean karpa baten beharra aurreikusten da.
- Dantza egiteko lekua behar da, soluzio bat. Ondo legoke espazio bat izatea baldintza egokietan (lur eta espazio egokia.ispilua izatea ...).
- Umeak ez daude ordezkatuta. Plazari begira, espazioa nolakoa izatea nahi den hausnartzeko orduan, haurren iritzia jasotzea garrantzitsua da.

Jarraian, ideia guztien errebasoa egin da adostasunak dauden elementuak identifikatuz, horiek abiapuntutzat hartu ahal izateko aurrera begirako lanketetan eta oinarri gisa jartzeko. Era berean, zalantza sortzen duten elementu nagusiak azpimarratu dira, horiei erantzun bat eman beharko zaiela adieraziz.

Honako adostasunak eta zalantzazko elementuak identifikatu dira:

ADOSTASUNAK
<ul style="list-style-type: none">- Plazan zerbitzu ezberdinak (udal bulegoak, gizarte zerbitzuak, erabilera anitzak, 3. Adina oso kontuan...) jasotzen dituen eraikin berria kokatzea, Udal eraikina izango dena. Horretarako lehenesten da Kultur-etxe zaharraren kokapena, berau bota behar delarik eta bertan eraiki Udal eraikina+bestelako zerbitzu sozialak nahiz erabilera anitzerako espazioak.
<ul style="list-style-type: none">- Estalpearen funtzioak hauek dira: eguneroko jardueretarako, batez ere haurren jolasa; horrez gain, aldizkakoak diren festak, ekitaldiak, bazkariak, e.a.. Ekimen oso puntualetarako dimentsio handiagoak behar badira momentuan erantzungo zaie behar horiei momenturako zehaztuko diren euskarriekin (alokatuz edota eskatuz).
ZALANTZAK
<ul style="list-style-type: none">- Hainbat pertsoneri sortzen zaie zalantza: egungo kokapenean uztea ala ez (eraikin berria).
<ul style="list-style-type: none">- Plaza zabala (oraingo Udal eraikinik gabe) polita dela iruditzen zaie, zalantza dago ea plazaren tamaina mugatu ahal den.

ERABAKI DA: Udal arduradunei proposatzea eraikin berriaren lizitazioa martxan jartzea eta lehiaketa beraren bidez resolbitzea zalantzazkoak diren elementuak, hots, lehiaketari eskatzea aukera ezberdinak lantzea, horien azterketarekin, eta behin betiko idazketa egin aurretik kontrastea egitea herritarron posizionamenduak jasotzeko (aukera ere izan daiteke proiektu ezberdinen inguruko kontsulta antolatzea). Lizitazioa eraikinaren baitakoa izango bada ere, estalpearen kokapena resolbitzeko baliatu behar da.

5. 2017RAKO UDALAREN KRONOGRAMA

Orain arteko lanketaren balorazioa egin ondoren, udalak 2017an emango dituen pausoak eta beren gutxi gorabeherako epeak aurkeztu dira.

Jarraian jasotzen da lanketa horren eskema:






Urte osoan zehar, lanketa hori egiten ari den bitartean, herritarrekin kontrasterako saio batzuk egitearen garrantzia azpimarratu da. Horretarako, Talde Eragilea hainbat aldiz elkartzea planteatu da: irizpide zehatzengatik hautatuta, prozesuari jarraipen finkoa egingo diotela bermatuko duten pertsonak izaki.

6. SAIOAREN BALORAZIOA ETA AGURRA

Saioari bukaera emateko partaideei bilera baloratzeko eskatu diegu (nahiz partaide batzuk dagoeneko alde egin behar izan duten, berandutu egin dela eta).

Horretarako, papelografo batean hiru aurpegi jarri zaizkie, alaienetik tristeenera (berdea-horia-gorria) bi aldagai balora ditzaten prozesuaren inguruan: saio presentzialak eta sortutako edukiak. Honako emaitza atera da ariketa horretatik:

	SAIO BILERAK	SORTUTAKO EDUKIAK
	9	8
	1	1
		

Saioari amaiera eman zaio parte hartu izateagatik eskerrak emanaz.

2016ko abenduaren 14an, arratsaldeko 20:15ean

MILA ESKER GUZTIOI ZUEN EKARPENENGATIK!